2007-2008 ikasturtean master ofizialak egiteko dirulaguntzatarako deia egin zuen.

Goian azaldutako Aginduaren 26.2. oinarri-arauari jarraituz,

EBATZI DUT:

*Lebenengoa.*– Deialdiaren Aginduan ezartzen diren baldintzak betetzen dituzten eskatzaileei dirulaguntza ematea eta baldintzak betetzen ez dituztenei dirulaguntza ukatzea.

*Bigarrena.*– Ebazpen hau eta laguntza jaso dutenen edota ez dutenen zerrendak dagokion unibertsitateetan jendaurrean azaltzeko agintzea. Zerrenda horiek jendaurrean egongo dira beka-kudeaketarako atalean maiatzaren 5etik 15era. Zerrenda horietan agertzen ez direnen eskabideak ez direla onartu ulertu behar da.

*Hirugarrena.*– Ebazpen honek ez du administraziobidea agortzen eta, beraz, gorako errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote bere eskubideak kaltetu direla uste duten laguntza-eskatzaileek Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari, notifikazioa jaso eta hilabeteko epean.

*Laugarrena.*– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko apirilaren 14a.

Unibertsitate zuzendaria,
FRANCISCO JUARISTI LARRINAGA.

tónoma del País Vasco, becas para la realización de másteres oficiales en el curso 2007-2008.

De conformidad con lo establecido en la base 26.2 de la Orden de convocatoria arriba indicada,

RESUELVO:

*Primero.*– Conceder la ayuda a las personas solicitantes que reúnen los requisitos fijados en la Orden de convocatoria y denegársela a las que no reúnen los citados requisitos.

*Segundo.*– Ordenar la publicación en las Universidades respectivas, de esta resolución y de los listados de solicitantes a los que se ha concedido o denegado la beca. Estos listados quedarán expuestos al público en las unidades de gestión de becas entre los días 5 y 15 de mayo. Las solicitudes que no figuren en los mismos se entenderán desestimadas.

*Tercero.*– Contra esta resolución, que no agota la vía administrativa, los solicitantes de beca que consideren lesionados sus derechos podrán interponer recurso de alzada ante la Viceconsejera de Universidades e Investigación en el plazo de un mes a partir de la notificación.

*Cuarto.*– Ordenar la publicación de esta resolución en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 14 de abril de 2008.

El Director de Universidades,
FRANCISCO JUARISTI LARRINAGA.

## GARRAIO ETA HERRI LAN SAILA

## 2626

EBAZPENA, 2008ko urtarrilaren 31koa, Garraio Azpiegituraren zuzendariarena, «Donostia-Hendaia trenbidea Errenteria-Portomoko artean bikoizteko trazadura-proiektua. Fanderia-Oiartzun tartea» jendaurrera ateratzeko dena.

«Donostia-Hendaia trenbidea Errenteria-Portomoko artean bikoizteko trazadura-proiektua. Fanderia-Oiartzun tartea» onartzeko espedientea ikusi dut.

Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sarearen Lurraldearen Arloko Planak, otsailaren 27ko 41/2001 Dekretu bidez onartu eta otsailaren 22ko 34/2005 Dekretu bidez aldatutakoak, Donostia-Hendaia trenbidea bikoiztea aurreikusten du.

## DEPARTAMENTO DE TRANSPORTES Y OBRAS PÚBLICAS

## 2626

RESOLUCIÓN de 31 de enero de 2008, de la Directora de Infraestructura del Transporte, por la que se aprueba definitivamente el «Proyecto de Trazado del Desdoblamiento de la Línea Donostia-Hendaia entre Errenteria y Portomoko. Tramo La Fandería-Oiartzun».

Visto el expediente de aprobación del «Proyecto de Trazado del Desdoblamiento de la Línea Donostia-Hendaia entre Errenteria y Portomoko. Tramo La Fandería-Oiartzun».

El Plan Territorial Sectorial de la Red Ferroviaria en la Comunidad Autónoma del País Vasco, aprobado por Decreto 41/2001, de 27 de febrero, y modificado por Decreto 34/2005, de 22 de febrero, contempla el desdoblamiento de la línea Donostia-Hendaia.

Donostia-Hendaia trenbidearen barruan Errenteria-Portomoko bidezatian Fanderia-Oiartzun tartea bikoizteko trazadura-proiektuaren helburua da 9+700 KP-aren eta Oiartzungo geltokiaren arteko tartean trenbidea bikoiztea eta Fanderiako eta Oiartzungo geltokiak egitea.

Trenbide Sektorearen Legearen Erregelamenduaren 10.5 artikuluan ezarritakoari jarraituz, esan bezala, proiektua jendaurrera atera zen Garraio Azpiegituraren zuzendariaren 2006ko otsailaren 20ko Ebazpen bidez. Ebazpena 2006ko martxoaren 10eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren 49. zenbakian argitaratu zen, eta hogeita hamar egun balioduneko epean Errenteriako eta Oiartzungo udaletxeetako iragarki-oholetan izan zuten.

Jendaurrean izan zen epe horretan, hainbat alegazio eta iradokizun jaso genituen proiektuaren edukiaren inguruan, eta aztertu ondoren, horietako batzuk kontuan hartu genituen, alegazioak aurkeztu zituztenei zuzenean bidalitako erantzunetan adierazi zitzaien moduan. Aurkeztutako alegazioetatik baietsi diren alderdiak eraikuntza-proiektuan jasoko dira.

Ingurumen sailburuordearen 2007ko urriaren 5eko Ebazpenaren bidez, proiektuaren ingurumen-inpaktuaren deklarazioa aldekoa izan da, baina zenbait baldintza jartzen ditu eraikuntza-proiektua egiteko, eta obrak egin bitartean eta zerbitzua ustiatzekoan bete beharreko hainbat neurri babesle eta zuzentzaile ezartzen ditu.

Garraio Azpiegituraren Zuzendaritzako zerbitzu teknikoek proiektua aztertu, eta aldeko txostena eman dute, eta egiaztatu, teknikoki zuzena dela eta trenbideen alorreko legeria betetzen duela, bai eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen 124.1 artikuluan, abenduaren 30eko 2387/2004 Errege Dekretuaren bidez onartutako Trenbide Sektorearen Legearen Erregelamenduaren 11, 12 eta 13. artikuluetan xedatutakoa eta indarrean dauden gainontzeko legezko xedapenak ere.

Trenbide-garraioaren azpiegituretako proiektuak onartzea Garraio Azpiegituraren zuzendariaren ardura da, hala ezartzen baitute Garraio eta Herri Lan Sailaren egitura organikoa eta egitekoak finkatzen dituen urtarrilaren 15eko 20/2002 Dekretuaren 7.g eta 10.1.e artikuluek eta ekainaren 27ko 8/2005 Dekretuaren 16.1.a artikuluak.

Trenbide Sektorearen Erregelamenduaren 13.1 artikuluak ezartzen duenez, trenbide-linea berriak jartzeko proiektuak onartuz gero edo lehendik dauden trenbideak handitzeko edo hobetzeko obrak egiteko lur-sail handiagoa behar izanez gero, eta juridikoki bidezkoak izanez gero, nahitaezko desjabetze kontuetarako, trenbideak zeharkatu behar duen lur-saila edo handitze-obrak hartu behar dituena herri-erabilerakotzat, interes sozialekotzat eta lehenbailehen okupatu beharrekotzat joko da, besterik gabe.

El objeto del «Proyecto de trazado del Desdoblamiento de la Línea Donostia-Hendaia entre Errenteria y Portomoko. Tramo La Fandería-Oiartzun» es la duplicación de vía en el tramo comprendido entre el P.K. 9+700 y la estación de Oiartzun y las nuevas estaciones de La Fandería y Oiartzun.

El Proyecto se ha sometido al trámite de información pública previsto en el artículo 10.5 del Reglamento del Sector Ferroviario, mediante Resolución de 20 de febrero de 2006, de la Directora de Infraestructura del Transporte, publicada en el Boletín Oficial del País Vasco n.º 49, de 10 de marzo de 2006, y expuesta durante el plazo de treinta días hábiles en el tablón de anuncios de los Ayuntamientos de Errenteria y Oiartzun.

Durante los referidos trámites se han recibido alegaciones y sugerencias de diverso contenido, que se han analizado y, en su caso, tenido en cuenta en los términos que constan en las respectivas respuestas individuales. Los aspectos de las alegaciones que han sido estimados se incorporarán al Proyecto de Construcción.

Mediante Resolución de 5 de octubre de 2007, del Viceconsejero de Medio Ambiente, se ha formulado con carácter favorable la Declaración de Impacto Ambiental del Proyecto, estableciendo una serie de condiciones para la realización del proyecto constructivo y medidas protectoras y correctoras para su adopción durante la ejecución de las obras y la explotación del servicio.

El Proyecto ha sido supervisado e informado favorablemente por los servicios Técnicos de la Dirección de Infraestructura del Transporte, acreditándose que es correcto técnicamente y que cumple la normativa específica en materia de ferrocarriles, así como lo dispuesto en el artículo 124.1 de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas, 11, 12 y 13 del Reglamento del Sector Ferroviario, aprobado por Real Decreto 2387/2004, de 30 de diciembre, y demás disposiciones legales vigentes.

Este órgano es competente para la aprobación de los proyectos de infraestructura del transporte ferroviario, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 7.g) y 10.1.e) del Decreto 20/2002, de 15 de enero, sobre estructura orgánica y funcional del Departamento de Transporte y Obras Públicas, y al artículo 16.1.a) del Decreto 8/2005, de 27 de junio.

El artículo 13.1 del Reglamento del Sector Ferroviario establece, que la aprobación del correspondiente proyecto de establecimiento de nuevas líneas, así como las obras de ampliación o mejora de líneas preexistentes que requieran la utilización de nuevos terrenos y cuya realización resulte jurídicamente procedente, supondrá la declaración de utilidad pública o interés social y la urgencia de la ocupación a efectos de expropiación forzosa de los terrenos por los que haya de discurrir la línea o realizarse la ampliación o mejor según lo previsto en la legislación expropiatoria.

Horiek horrela, aipatutako xedapenak, horiekin bat datozenak eta aplikatu beharreko gainontzekoak ikusirik,

EBATZI DUT:

*Lehenengoa.–* «Donostia-Hendaia trenbidea Errenteria-Portomoko artean bikoizteko trazadura-proiektua. Fanderia-Oiartzun tartea» behin betiko onartzea.

*Bigarrena.–* Trazadura-proiektu honek berekin dakar obrak herri-onurakotzat eta gizarte-interesekotzat jotzea, eta proiektuarekin batera doan eranskinean jasotako ondasun eta eskubideak lehenbailehen okupatu beharrekotzat aitortzea.

Ebazpen honen kontra, administrazio-bidea agortzen ez duenez, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Garraio eta Herri Lan sailburuordeari, ebazpena jakinarazi edo argitaratu egunaren biharamunean hasi eta hilabeteko epearen barruan; idazkia Garraio Azpiegituraren zuzendariari edo Garraio eta Herri Lan sailburuordeari bidali beharko zaio.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko urtarrilaren 31.

Garraio Azpiegituraren zuzendaria,
MIRARI ARRUABARRENA ELIZALDE.

Vistas las disposiciones citadas, y demás concordantes y de general aplicación,

RESUELVO:

*Primero.–* Aprobar definitivamente el «Proyecto de Trazado del Desdoblamiento de la Línea Donostia-Hendaia entre Errenteria y Portomoko. Tramo La Fandería-Oiartzun».

*Segundo.–* La aprobación de este Proyecto de trazado conlleva la declaración de utilidad pública o interés social de las obras y la urgencia de la ocupación de los bienes y derechos afectados relacionados en el anexo correspondiente del propio Proyecto.

Esta Resolución no es definitiva en vía administrativa, y contra ella los interesados pueden interponer recurso de alzada ante el Viceconsejero de Transportes y Obras Públicas, dentro del plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de notificación o publicación, dirigiendo el escrito de interposición bien a este órgano, bien al Viceconsejero de Transportes y Obras Públicas.

En Vitoria-Gasteiz, a 31 de enero de 2008.

La Directora de Infraestructura del Transporte,
MIRARI ARRUABARRENA ELIZALDE.

## NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA SAILA

## 2627

EBAZPENA, 2008ko martxoaren 18koa, Elikagaien Industriako zuzendariarena, nekazaritzako eta elikadurako produktuak sustatzeko jarduketetarako laguntzari buruzko urriaren 21eko 258/2003 Dekretuaren esparruan 2007ko ekitaldian emandako dirulaguntzak argitaratzekoa.

Nekazaritzako eta elikadurako produktuak sustatzeko jarduketetarako laguntzari buruzko urriaren 21eko 258/2003 Dekretuaren helburua da Euskal Autonomia Erkidegoan nekazaritzako eta elikadurako produktuak sustatzeko ekintzetarako laguntza-erregimena ezartzea, landa-ingurunearen garapena eta kalitatezko nekazaritza-ekoizpenak bultzatzeko bidea den aldetik.

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuaren 2007ko abuztuaren 20ko Aginduaren bidez egin zen laguntza horien 2007ko deialdia.

## DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA, PESCA Y ALIMENTACIÓN

## 2627

RESOLUCIÓN de 18 de marzo de 2008, del Director de Industrias Alimentarias, por la que se publica la relación de beneficiarios de las ayudas económicas concedidas durante el ejercicio 2007 en el marco del Decreto 258/2003, de 21 de octubre, de apoyo a actuaciones de promoción de los productos agrarios y alimentarios.

El Decreto 258/2003, de 21 de octubre, de apoyo a actuaciones de promoción de los productos agrarios y alimentarios, tiene por objeto el establecimiento, en la Comunidad Autónoma del País Vasco, del régimen de ayudas a las acciones de promoción de los productos agrarios y alimentarios, como medio para contribuir a impulsar el desarrollo del medio rural y las producciones agrarias de calidad.

Mediante Orden de 20 de agosto de 2007, del Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación, se convocaron para el año 2007 las referidas ayudas.